

**JARRAIBIDEAK:**

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu, (A edo B)

**A AUKERA**

1. Deskribatu, idatziz, aurkezten dizuegun kartelaren irakurketa konnotatiboa eta denotatiboa.

*OHARRA: Aurkezten dizuegun testua zuen iruzkina bideratzeko da.* Hiru alderdi hartuko ditugu kontuan:

a) **Irakurketa objektiboa. Denotatiboa.- 4 puntu**

**Kartela** osatzen duten elementu guztien azaleko deskribapena egin, ondoko proposamenaren arabera analizatuz eta kokatuz:

Marraz ezazu konposizio-eskema bat, honako hauek adieraziz: ikusizko ibilbideak, arreta zentroa eta indar-lerroak. Azaldu ikusten diren formak: alde bakoitzean nagusitzen diren kolore gamak, eta kontrasteak dauden edo ez. Aztertu erabiltzen den argi mota. Azaldu hautaturiko plano-mota eta angeluazioa.

b) **Irakurketa subjektiboa. Konnotatiboa.- 3 puntu**

Kartelaren egileak elementu jakin batzuk erabiltzeko izan duen asmoa aztertzen saiatu. Ezkutuko mezuak aztertu: status soziala, sexua, behar berriak sortzea, konparazioak, e.a./ Zer asmo du? Konbentzitzea, iritzia sortzea, informazioa ematea, e.a. / Zer balioesten du? Sentimenduak, jarrerak, ideiak, joerak / Nori zuzendua dago? Zergatik?/ Iradokizun maila: atsegina da, bortxazkoa, erakargarria, lasaigarria, e.a. Pertzepzioa manipulatzeko elementuren bat erabiltzen al du? Zer sentimendu konnotatzen du irudi honek? Erabiltzen dituen formek, manipulatzeko intentzio psikologikoren bat al dute? Zergatik erabiltzen ditu kolore jakin batzuk? Zergatik erabiltzen ditu enkoadraketa edo angeluazio jakin batzuk? Zer helburu du oro har?

c) **Kartelaren kritika.- puntu 1**

Egin kartelaren kritika labur bat, kartela ikustean sorrarazi dizun sentimendua edo inpresioa agertuz.

- 2.- **Definitu idatziz ondoko kontzeptu hauek: Argazkigintza  
Irekidura eta abiadura. Eremu-sakonera. Esposizioa. 2 puntu**

**B AUKERA**

1.- **Garatu, idatziz, Komikia.**

Komikietako hizkeraren ezaugarriak: berezko zeinuak.

Mugimenduaren, soinuaren eta denboraren irudikapena. **4 puntu**

2. **“Story board” bat sortu**, eranstean den testua oinarri hartuta. Zortzi bineta edukiko ditu, 10 bider 8 zentimetrokoak, eta folio bakoitzean lau ipiniko dituzu, izenburua eta bukaera ere folioaren barnean daudela. Sartzen diren angeluei eta planoetara buruzko oharra idatziko dituzu. **6 puntu**

B AUKERA

## *Itxura engainagarria*

Behin batean, amonak aginduta, Adela, bazkaria prestatzeko, zizatara joan zen basora. Aurkitu zituen batzuk oso ederrak, handiak eta kolore ederretakoak, eta haiekin bete zuen saskia.

–Ikusi amona –esan zuen etxera iristean-, ederrenak ekarri ditut...

ikusi ze kolore gorri polita duten!

Baziren beste batzuk zimurragoak, baina horiek ez ditut hartu.

–Ene neskatoa -erantzun zion amonak-

zimurtu horiek dira hain zuzen nik betidanik hartu ditudanak.

Itxura engainagarriaz fidatu zara, eta onddo pozoitsuak ekarri dituzu. Hauek jango bagenitu, gaixotuko ginateke; eta akaso zerbait okerrago...

Adelak orduantxe ulertu zuen ez zuela fidatu behar gauzen itxura ederrarekin, batzuetan ez dakigun kaltea ezkututzen baitute itxura ederrek.

Amaiera

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

IMAGEN

CURSO 2008 / 2009

OPCIÓN A

